

JIMENO JURIOREN
NAVARRA. HISTORIA
DEL EUSKERA
LIBURUAZ

PATXI SALABERRI

Oraindaino idatzi dituen liburu ugarien artetik gure irudiz hoberenetakoa den hau bere andre Elenari eta seme Roldani eskaintzen die Jose Mari Jimeno Jurío ikertzaile artaxonar beteranoak, euskaraz erraten duen bezala Tafallan ospatu den «Nafarroa oinezan kariatara». Txalapartaren eskutik iritsi zaigun argitarapen zaindu honek¹ lana kale-
ra ateratzen lagundu duen Euskal Fundazioko Juan Zelaiaren hitzak dakartza hastean, eskaintzaren aitzinean, eta, hedatu-
kiroago, Jose Mari Satrustegi nafar euskaltzainarenak gero, aitzinsolastako, sarreraren aurretik. Gaia garatzen den zortzi atal ditu liburuak, bibliografia, oharrak biltzen dituen zatia, eta izen aurkibide hagitz erabilgarria, buruenik.

Gure ustean behar-beharrezko zen honelako lan sistematikoa egitea, baitezpadako genuen orain arte han-hemen argita-

ratu eta aldizkari-liburuetan barreiatutako material guztiak bilduko zituen liburua kalera ateratzea². Nafarroako euskararen historiaren inguruko lan horietako anitz Jimeno Jurionak berarenak dira, bera aritu baita, jo eta ke, hondarreko urte hauetan artxiboak arakatzen, euskararen berri nondik harrapatuko. Artxibo arakatze lan horren ondoretzat, Artaxona-koak oraindik ere argia ikusteko zeuden hainbat datu zituen sakelari altxaturik, eta hauek ere ezagutzera eman beharrak ziren, gure hizkuntzaren onerako.

Mintzagai hartu dugun liburu hau ezin utzizkoa da hainbat arlotan lan egiten dutenendako: euskal filologoendako, bertan euskarazko hamaika esaldi eta berri interesgarri azaltzen direlako; hizkuntzaren historiaz arduratzen direnendako, azken mendeotako euskararen eta erromantzearen arteko mugak zehatz finkatzen direlako; soziolinguistendako, orain arteko beste lan batzuetan ez bezala, honetan ukitzen diren herrietako egoera soziolinguistikoa ere aztertzen delako —agirien bidez ikus daitekeen neurrian, jakina—, eta oro har, liburua irakurtzea eta ezagutzea ezinbestekoa da edozein euskaltzalerendako, hots, euskararen profesionalak izan gabe ere euskal gauzak maite dituztenendako.

Liburua, euskararen historia bera bezala, ezkor samarra da batzuetan; izan ere, tristea da, erdararekin lehian eta borrokan ibili ondoan, Nafarroako hainbat herri eta ibarretan gure hizkuntza nola baztertu zuten, eta heriotzara eramanez, ikustea. Tristeia da, orobat, euskara eskolatik beti zokoratua nola egon den irakurtzea, edo nola gutxi batzuek gaztelania ulertzea aski zen elizatik eta ekintza publikoetatik euskara uxatzeko. Egilea liburuak duen ezkortasun zamaz ohartu da, eta honengatik seguraski, azkeneko atalean euskararen berpizkundea erakutsi nahi izan digu, egungo makina bat datu pozgarri emanaz.

SARRERA

Sarreran foruez eta hizkuntzaz mintzo zaigu Jimeno Jurio. Honen iritzian euskara dugu Nafarroaren ezaugarri bereizlerik

behinenetakoa, baina hau horrela izanagatik, ez ohi da halakotzat hartu gaur egun, foruekin bestela jokatzeko den bitartean. Hau gure ustez hagitx ideia inportantea da, eta nabarmendu beharrekoa. Inportantea da, halaber, nafarrok gure eremuko hizkuntzez mendeetan zehar pentsatu duguna ezagutzeko. Artaxonako ikertzaileak dioten bezala, nafarrok oso garbi izan dugu, historian zehar eta oraintsu arte, euskara zela geure hizkuntza, eta gaztelania kanpotik etorria zela. *Nafarra = euskalduna* eta *lingua navarrorum = euskara* berdinketak ohikoak izan dira gure historian.

HIZKUNTZAREN ANTZINATEA

Hizkuntzaren antzinateari eskainita dagoen aurreneko atalean historian zehar euskararen jatorriaz erran direnak aipatzen ditu Jimeno Juriok, gaingiroki bederen, ez baitzen hau toki egokia gai honetan gehiago sakontzeko, tartean azken urteotako aurkikundea den Pedro Agramont eta Zaldibar notario tuterarraren iruzkinak ere badaudela. Ezin falta zitekeen, atal honetan, baskoiberismoaren teoria ezagunaz erran dena, labur--labur bildurik besterik ez bada ere.

Euskararen iraupenaz hainbat ikertzailek beren buruari egin dioten galdera bera egiten dio Artaxonako idazleak bereari: nola eutsi ote zion euskarak latinaren aitzinean? Erantzuna, Jimeno Jurioren arabera, ez dugu ez isolamenduan —bide garrantzizkoz josia egon zen Euskal Herria— ez eta orografia zailean ere, berandu arte euskalduna izan den Nafarroako Erdialdea, adibidez, eskuraerraza zelako, erromanizazio kultural sakonaren lekukotasun ugariak frogatzen dutenez. Erantzuna gehiago bilatu behar genuke euskararen agraflan (hau da, euskara izkribuzko hizkuntza ez izatean), euskalduneriaren hertsitasunean eta latinaren alderako permeabilitate ezean, beste deusetan baino.

Puntu honetan egileak garrantzi handiko beste ideia bat plazaratzen du: erromanizazioa eta latinizazioa bat bertzat hartu eta hartzen diren arren, berez ez dira gauza bera, eta Eus-

kal Herrian, eta Nafarroan beregainki, argudio asko ditugu kontu desberdintzat emateko. Izan ere, badakigu, aurkikuntza arkeologikoei esker, euskaldunok ontako hartu genuela (eta, neurri batean behinik behin, guretu) kultura erromatarra, baina honek ez du erran nahi, inola ere, goizetik gauera euskara utzi eta latina mintzatzen hasi ginela. Ezin da ondorioztatatu, Caro Barojak eta honen harikoekegin duten moduan, hiltarrietan opatu diren edo gure toponimo askoren jatorrian ditugun izen latinoetatik abiaturik, latina euskaldun ooren mintzaira bilakatu zela.

Artaxonako ikertzailearen arabera, euskal jauneriak Erromako ohitura eta kultura bere egin eta latina ikasiagatik ere, euskara ez zukeen atzendu, eta herri xeheak euskaldun elebakar iraun zukeen. Ezin da ulertu, bestela, nola hil hurran zen hizkuntza batek burua jaso eta indar berriak har zitzakeen, beste hamaikaren desagerpena eragin zuen latin indartsuaren aurkezean. Erromako inperioa behera etortzearekin, latinaren atzerapena gertatuko zen gurean, erran izan den bezala, baina bereziki elebiduna zen jauntxo eta jabeen taldean, elebakarra zen jende xehearen artean ezinezkoa baitzen honelakorik gertatzea.

ERDI AROA

«Islamiten» etorrerarekin gauzak ez ziren asko aldatu euskararendako. Arabiar edo bereber jatorriko jende oldarrik ez genuen izan Erriberako zelaietan; erromatarren garaian agitu zenaren ildo beretik, buruzagiak islamizatu, agintari berrien autoritatea onartu eta lehengo jarraitasun etnikoari eutsi bide zitzaion, jarraitasun hau goragoko euskaldunekiko ezkonloturen bitartez indartzen zelarik, izatekotan. Errekonkista garaikoa da Garibairen bidez iritsi zaigun *Erriberri* izen polita, gaur egun *Olite* izendatzeko ibiltzen dugun arren berez musulmanei hartutako lur berria, eremu berria adierazten zuena, Artaxonakoak dioskunez.

Erriberaz atzera jabetzeak hizkeraz euskalduna zen erresuma erromantzearekin harremanetan sartzea izan zuen ondore. Izan ere, eta egileak dioenez, Erriberako toponimian arabieraren aztarna gutxi daude, hizkuntza hau herriarena izan ez zelako seinale. Erromanizazioarekin aurreko euskara galdu —noizbait hitz egin bazen, ez aldeko ez aurkako daturik ez baitugu— eta latina mintzatzen hasiko ziren erriberanesak; gero islamitak iristearekin arabiera bilakatuko zen kulturako hizkuntza Nafarroako hegoaldeko zelaietan, baina, dena den, ez bide zen herriaren mintzaira izatera iritsi.

Errekonkistarekin batera *Nafarroa* kontzeptua ere aldatu egingen da; hasieran Nafarroako iparraldea adierazten zuena, Nafarroa osoa adieraztera igaro zen, baina hau XIII. mendean oraino bururakizun zen. Lekukotasun interesgarriak dira egileak biltzen dituenak: garai honetan Azkoiengoak arrenkuratu ziren, «Nafarroatik» joandako batzuek beren burua kaparetzat igarorazi nahi zutelako, izatez bilauak zirelarik. Tuterakoek, bestalde, «Nafarroara» igorri zituzten mezulariak, Teobaldo I erregerengana. Lekukotasun hauetan garbi ikusten da Erriberako herriak ez zirela Nafarroakotzat hartzen, eta honek gorago aipatu dugun *nafarra = euskalduna* berdinketa konprenitzen laguntzen du, anartean Nafarroak euskalduna zen eremua besterik ez baitzuen harrapatzen, irudi duenez.

Erdi Aroari eskainitako atal interesgarri honetan testigantza ezagunak aurkezten dizkigu Jimeno Juriok, erran dugun bezala bere lana bilduma lana baita, neurri handi batean. Horien artean ezin falta zitekeen Aimery Picauden idazkia, non Euskal Herria *lingua barbara* bera zuten bi zatitan —Iparraldeko *tellus basclorum* eta Hegoaldeko *tellus navarrorum*— banatzen den. Ezin falta zitezkeen, ezta ere, *Lizarrako Forua*-n azaltzen denetik segitzen bide diren ondorioak, merindadeko euskararen hedaduraren azterketarako³. Hemen, besteak beste, agiri-ko *Arqueta* toponimoa *Arkueta* irakurri eta erdaraz *Los Arcos* deritzan herriarekin identifikatu behar dela defendatzen du egileak.

Donejakue bidearen inguruan sortuz joan ziren hirietako bilzilagan etorri berriek ekarri erdara ere solasgai hartzen du Ar-

taxonako ikertzaileak, Zierbide irakasle tafallarrari jarraikiz Languedoceko okzitaniera zela erranez, Pirinioez iparraldeko eta hegoaldeko frankoek elkar ulertzeko sortutako *koiné* edo batu tankerako zerbait⁴. Hizkuntza honen idatzizko lekuko franko baditugu ere, ez zuen euskararen atzerapenean zerikusirik izan, Jimeno Jurioren arabera, eta toponimian ez zuen ia aztarrenik eta kuntzerik utzi. Bestelakoa da Nafarroako Erriberan eta Nabaskoze-Erromantzatuan sortu zen latinaren ondorengo autoktonoak jokatu zuen papera, Karlos II.aren zinegitean *ydimate Navarre terre* izendatzen dena. Hau latinaren ordaina izanen da agirietan, gortearen hizkuntza, eta, erran bezala, Erriberako eta Nafarroako ekialdeko alderdi batekoen mintzaira, denborarekin gaztelaniak ordezkaturiko duena, elkarren artean zuten eite handiagatik hein batez⁵.

Euskararen muga historikoen berri jakiteko egilea toponimiaz baliatzen da, bai eta ere antroponimiaz. Hau ez bairik gabe leku izendegia baino zutabe mugikorragoetan dago oinarriturik, baina ezin da ukatu lanabes baliagarria izan daitekeela aipagai dugun eginkizunerako, aztertzen jakinez gero.

Jimeno Jurioren lanak duen aldeko puntu bat orain arteko autoreek —Aingeru Irigarai, Koldo Mitxelena, Florencio Idoate, Alfonso Irigoien, Jose Maria Satrustegi, Fdo. González Ollé, Joseba Intxaustik eta bestek— erran dutena ongi eza gutzea da, oso lan dokumentatua baita esku artean duguna. Beste bat, eta arrunt inportantea deritzagu, irakurleak erraten direnak aisekiago uler ditzake-eta, mapez baliatzea da. Liburu honetan hamazazpi ageri dira: batzuk beste autoreen lanetatik hartuak dira, beste batzuk Jimeno Juriok berak taiutuak, eta beste batzuk, azkenik, besterenak izan arren Artaxonakoak moldatuak ditugu. Hauen artean 61. orrialdean ageri dena nabarmendu nahi genuke, euskarak Nafarroan izan duen hedadurarik handiena erakusten duena, hain zuzen ere. Egia da, bestalde, euskaltzale karrak harturik mugak beheitiago para litezkeela, baina horrela eginez gero —eta bada honen aldekoen bat edo beste— lana ez litzateke zientifikoa izanen, orain ditugun datuek mugak hor egon behar duela, ez gorago ez beherago, erakusten digutelako.

Bigarren atalaren bukaeran «hizkuntzen soziologia» izeneko azpiatal interesgarria heldu da. Interesgarria iruditzen zaigu, aurren-aurrena, Iruñeko Jaun Done Saturdiko (Moretek emandako izena darabilgu) burgua frankoena izan arren toponimoak, leku izenak, euskaratikakoak zirelako, beste burguetakoa bezal-bezala, euskaldunek hiriburuan izan zuten nagusitasunaren erakusgarri. Artaxonakoak hain ongi ezagutzen duen Iruñeko eta Iruñerriko leku izendegiak —ez dugu atzendu behar berak bildu eta aztertu duela Iruñerriko bost zendee-tako toponimia⁶, hiriburuaaren ondoan dagoen Burlatakoa⁷ eta hiriburukoa berekoa⁸, besteak beste— bertako euskararen berri ematen digu dudarik gabe: *Urradinda* edo *Zakudinda* izenak kale hauetan bizi zirenen lanbideez mintzo zaizkigu, lehendabiziko kasuan *urra* baitugu, eta bigarrean *zakua*, gehi «bidexka», «karrika» adierak izan dituen *dinda*, Artaxona-ko *Barrendinda* toponimoko *dinda* bera dena, beste anitz lekutako *inda*, *drinda*, *drunda*-ren aldaera. Alegia, bi karrika horien izenak bertan bizi ziren urragin eta zakuginei zor zaizkie. Beste izen polit bat *Langinobrari* dugu, non oraingo euskara batuan ohikoa den *langile*-ren ordainez Iruñe eta Iruñerriko *langina* azaltzen baita lehen osagaitako, eta *obrari* «kofradia» nafar toponimian hedatua bigarrentako. Puntu berean ageri den Leringo kondearen *txikirik andi* deizio edo izengoitia ere oso interesgarria da, nafar tradizioarekin bat datorrelako, Joakin Lizarragaren lana irakurrita ikusten den gisan. Hone-ladidio Elkanokoak San Antonio Paduakoaz ari delarik:

Berladanic («berehaladanik») mostratuzué izanenzéna, bere génio ta ingénio onarequi, **gasteric zarr** baize («baitzen»), ta **chipiric ándi**⁹.

Jimeno Juriok garbi utzi nahi du liburuan euskara herri txiki-tako jende xehearen hizkuntza izateaz landara, hor barna korritzen duten zenbait iritziren aurka, Nafarroako hirietako, eta hitz bikoitza darabilgu hemen, hizkuntza ere bazela, Agoitz, Irunberri, Iruñe eta bestetakoa, gorteko jendeak eta erregeren ahaideek ere ibiltzen zutena. Adibidez, hor ditugu lekuko Matxin Zalbako eta Martin Sanmartingoren arteko gutunetako

euskarazko zatitxoak, edo Leringo kondearen ahotan paratu ohi den pasadizoa¹⁰. Ideia hau behin baino gehiagotan agertzen da, han-hemen, liburuan barrena.

POLITIKA, ERLIJIOA ETA HIZKUNTZAK. XVI. MENDEA

Hirugarren atalean euskara karrikara jalgi zen XVI. mendean mintzo zaigu autorea, gure hizkuntzarendako erreforma protestanteak izan zuen garrantzia azpimarratuz, Leizarragaren liburua iruzkintzen duenean. Hemen, berriz ere, ikusten dugu Artaxonakoak irispidean izan dituen eskuarte guztiak baliatu dituela bere lana moldatzeko; honaino antroponimiaz, toponimiaz, euskararen historiaz eta abarrez mintzatu direnen lanak ibili baditu, orain ikusten dugu euskal literaturaz hitz egin dutenenak ere ezagutzen dituela, Mitxelena eta Lafitterenak, besteak beste.

Jimeno Jurioren euskal literaturaren alderateko interesa ez da berria; hor ditugu, konparaziorako, Iruñeko euskaraz idazten zuela zioen Juan de Beriainen biziaz eta lanaz osatu zuen artikulua¹¹, eta, berrikiago, Iruñeko Juanes Amenduxez egindako ikerketa¹², autore honen olerkian erraten direnak hobeki ulertzeko hagitx baliagarri izan dena. Ezin da ahantzi, ezta ere, Moret kronikaria euskalduna zela argitu zuela, era honetara orduraino gehienendako susmo hutsa zena¹³ egia bihurtzen zuela¹⁴. Euskal literaturarekin eta euskararekin modu batera zein bestera loturik dauden beste pertsonaia batzuk ere aipatzen ditu, hala nola «doktor nafarra» izena jaso zuen Martin Azpilkuetako barasoaindarra, Santxo Eltsoko eta Baltasar Etxabeko idazleak.

Liburuaren gida den gaiarekin jarraikiz, Manuel Lekuonak *RIEV*-en karrikaratu zuen 1587ko erregistro ezaguna aztertzen du egileak, lehenago ere egin den bezala kritikatu eta zuzentzeko (gerok aski ezkorrak gara zuzenketa honek dituzkeen ondorioei buruz; zorte gehiago izaten ahal du oraingoan artaxonarrak!), legetzat hartu izan den erregistro horrek huts fran-

ko dituelako, euskararen eta gaztelaniaren arteko mugari dagokionez, toponimoek eta agiriek frogatzen duten gisan.

Garai horretarako alderdi erdaldunean zeuden Tafalla eta Erriberriko datuak ere ematen ditu autoreak¹⁵, beste hamaika tokitako datuekin batera, eta hondarreko hiri horretako lekukotasun interesgarria ere —Ricardo Zierbidek eman zuen argitara orain hamar urte— aipatzen du, hurbilekoak garenondako harri garri suertatzen dena, ez baita ahuntzaren gauerdiko ezutula Erriberriko auzo batek, *Mitxelko Olitena* zeritzanak hain zuzen, euskaraz bera *etxejojaun prinzipala* zela erran izana. Beste hainbat herritako euskararen berri ere ematen du Jimeno Juriok, *FLV*-en gaurdaino argitaratutako lan ugarietan oinarri hartuz. Adibidez, Zaraitzu eta Nabaskozeko Almiradioaren arteko euskara / erdara mugaz mintzatzen denean, edo Oibar haraneko eta inguruetako euskararen egoera zehazterakoan lehenago moldatutako lanetatik abiatzen da¹⁶.

Euskararen eta gaztelaniaren arteko mugaz mintzatzean Artaxonako ikertzaileak Nafarroako euskararen historian gure irudiz oso inportantea den beste puntu bat ukitzen du —euskararen eta erdararen arteko muga zehaztasunez finkatzea, toponimian eta dokumentazioan oinarriturik, ez da hutsaren hurrengoa—, nahiz gu ez gauden zeharo ados dioenarekin: Jimeno Jurioren arabera ezin da onartu, orain arte egin den bezala, bi Nafarroen —euskaldunaren eta erromantzearen— artean erabateko mozketak zegoela. Haren irudiko hizkuntza mugaz bi aldeetan izanen ziren elebidunak, elkarren arteko harremanak erraztuko zituztenak. Euskaldunez den bezainbatean, adierazgarriak dira XVII. mendeko Zangoza eta Irunberriko bikario izandako Salvador Lubiánen hitzak. Honek dioenez, «ez dago erresuma honetan —Nafarroan— euskaldunik gabeko herririk ez hiririk, Mendialdea oso handia delako eta menditar asko jaisten direlako, gehienek edo denek erromantzez hitz egin eta euskara ulertzen ez duten herrietara».

Artaxonakoa euskararen eta gaztelaniaren arteko mugez ari delarik, toponimian egindako ikerketa lanak horretara bultzaturik dudarik gabe, ez da gelditzen ahal burutan dituen eta Nafarroako herrien izenei dagozkien oharrak ezagutzera eman

gabe. Gorago ikusi bezala *Los Arcos Arkueta* zela erraten bazuen, orain, *Arandigoien* herriko euskararen egoera aztertu bidenabar, erdaraz *Villatuerta* deitzen den herria (*Vi(l)lortorta* ere azaltzen da, latinezko idazkietan) **Arandibarren* zatekeela dio, bi herrion kokapenagatik. Honelako «irteerak» ulergarriak dira Nafarroako herrien euskarazko izenak zein ziren aztertzen urte mordoxka igaro duen Jimeno Jurío bezalako autore baten lanean.

Gorago erran bezala, gaurdainoko material guztiak baliatzen ditu egileak; horien artean Satrustegi apez euskaltzain nafarrak ezagutzera eman dituen euskarazko hainbat testu zahar, gure hizkuntzan egindako elizaz kanpoko, apezik gabeko ezkontzetakoak bereziki. Artaxonakoak duen Elizaren eta Elizako gauzen ezagutza handia ere nabarmendu nahi dugu hemen, zoragarria baita nola bereizten dituen Elizako kargu diferenteak, nola dakien kargu bat betetzeko eman beharreko urratsak zein ziren, nola ezagutzen dituen elizgizon batek zituen lanak, betebeharrak eta eskubideak, Elizaren barruko gora-beherak eta abar. Horretan, ezbairik gabe, hainbat urtez «lanbidekoa» izanak laguntzen dio, bestela ia ezinezkoa delako horrelako ezagutza zehatz-sakona erdiestea.

EUSKARA HIZKUNTZA NAZIONALA. XVII. MENDEA

Trentoko Batzarraren ondotik eta ondorioz, erretoreek eliztiarrek ulertzeko moduan ari behar zuten, eta hau zela-eta, herri euskaldunek apez euskaldunak eskatzeko ardura hartu zuten, elizbarrutiko tribunaletan hainbat auzi sorraraziz, euskara besterik ez zekiten tokietara apez erdaldunak —hauek zein mailatakoak baitziren ere— igortzen zituztenean. Auzi hauek garai hartan euskararendako eta euskaldunendako oso kaltegarria zen zerbait baldin badute ere iturburutzat, gaur egun primeran datozkie Jimeno Jurío bezalako ikertzaile langileei, aldi iraganetako gure hizkuntzaren egoera ezagutzeko.

Auziak ugariak izan ziren arren, Artaxonakoak garbi daku-sa hau euskararen Urrezko Mendea izan zela Nafarroan, aurren-

-aurrena euskararen mugak Erdi Arotik XVII. mende honetara aldaketarik gabe finko iraun zuelako, eta bigarrenik, letradunak eta apezak harro azaltzen zirelako beren euskalduntasunaz. Auziez landara, «bisitaldietako aginduak» ere garrantzi berezikoak dira euskararen berri jakiteko. Hauek apezpikuak berak edo, bestela, honek bere ordainez bidaltzen zuen apez bisitaitzaileak toki bakoitzean agintzen zituenak ziren, lekuan lekuko apezak bere eliztiarrei aditzera eman behar zizkienak, ulertzeko moduan, euskaraz beraz, herri euskaldunetan. Horregatik arrunt samarra da dokumentazioan «euskaraz eman nien aditzera», «euskal hizkuntzan adierazi nien» eta abarren modukoak topatzea.

Euskararen kalitatea eta hitz jarioa inportanteak bide ziren antzina ere; exenpluztat hor dugu Jimeno Juríok miatutako 1571ko agiri batean azaltzen dena: Etxauribarren dagoen Arraitza herriko bikarioa bidali nahi izan zuten, predikuan «totelka eta zizaka» aritzen zelako, beregainki euskaraz ihardukitzen zuenean.

Justiziako funtzionarioek ere, notarioek eta, euskaldunak izan behar zuten herri euskaldunetan ari ahal izateko; erdaldunetarako «komisario hartzaile» erdaldunak zeuden. Tarteka, eta salbuespen moduan, eskribau erdaldunei toki euskaldunetan lan egiten uzten zitzairen, baina horretarako itzultzailearen beharra izaten zuten. Hemen puntu bat azpimarratu nahi dugu, ezaguna den arren. Izan ere, Nafarroako euskararen historiari mintzo garenean, anitz aldiz, bakarrik gure hizkuntzak galdu duen eremuaz iharduki ohi dugu, baina ez hainbeste duen edo zuen kalitateaz, eta ez gara ohartzen iragan mendetan euskara askoz hedatuago egoteaz gainera, euskaldunak neurri handi-handi batean elebakarrak zirela, eta hau hizkuntzaren kalitatearen berme zela. Kalitate hau Ondarra, Satrustegi eta beste argitara ematen ari diren testuetan ikusten da, baina ez agian behar adina, gehienak itzulpenak baitira, egileak, edo itzultzaileak hobeki erran, arrunt mugaturik zeudelarik, askatasunez idatzi ahal izateko.

Kalitate hori, neurri batean bederen, Artaxonako ikertzaileak XVII. mendean bi hizkuntzen arteko muga non barna zihoan

aztertzerakoan aipatzen dituen euskarazko esaldietan ikusten da. Esaldi hauek, gainera, garrantzi berezia dute euskal filologiarako, hainbat punturen berri ematen digutelako. Adibidez, 1694an Artaxoko apezak bertako auzo bati errandako «(adarrak) joanic baituc, eta hizanentuc» («[adarrak] jadanik badituk, eta izanen dituk [gero ere]», itxuraz), Irunberriko batek Leiren mehatxu moduan botatako «*Indac onat maquil ori, nic adicuto diat fraide hoc*» («Eman ieziadak hona makila hori, nik 'ulertuko' ditiat fraideok», 1624), Eloko bikarioaren «*indan ene olloa*» («eman ieziadan ene oiloa»), Añorbeko auzoaren «*ori beçayn ona naiz*» (1659), Urdozko apezak zaflona eman zion andreari botatako «*eliza sandu ontan escu egosten duenaz, jaincoac valamoque castigu*» («eliza santu honetan esku botatzen duenari Jainkoak emanen lioke kastigu», 1686)... eta beste bakanka aurkitzen diren harbitxi zoragarriak dira.

Harbitxia da, berebat, hikaren eta alokutiboaren garrantziaz eta egoeraz oharrarazten gaituenez gero, Biurrunen 1666an erregidoreak bikarioari errepikatu zion «(*haragia) bauquec*» («[haragia] badukek», hau da, «[haragia] izanen duk [seguras-ki]», alokutiboan edo hiketan, «izanen da» edo «izanen duzu» erregistro neutroan) «euskarak duen hitzik baxuenetakoa baita, zein, hika tratatzeaz gainera, hitz zakar eta irigarria den, gizonak guztiz grabekiro haserrarazten dituen».

Gorago erran bezala, Artaxonakoarendako XVII. mendea Nafarroako euskararen Urrezko Mendea baldin bazen ere, hizkuntza ofizial bakarra zen gaztelania pusaka eta bulkaka heldu zen, hainbat herritako erretoretza euskaldunei kentzeko auziak sortaraziz. Jendeak gaztelaniaz ere baldin bazekien, nahiz euskaldun peto-petoak izan, herri edo hiria toki erromantizatutzat hartzen zen, eta apez erdalduna paratzen. Jimeno Juriok dioenez euskara galdu eta gaztelania inposatzen ari zelako sentimendua orokorra zen, orduko euskaldunek gero gertatuko zena garbi ikusten zutelako seinale.

ARGIEN ETA ITZALEN MENDEA

XVIII. mendea Europarendako argien mendea izan bazen ere, euskararendako ilunbearena izan zen, erdararen nagusitzea handituz joan baitzen, borbondarrak boterera iritsi zirenez geroztik. Karlos III.aren garaian erdara inposatzen dute irakas-kuntzan, bai Ameriketako kolonietan, eta bai Penintsulan, Ar-taxonako ikertzaileak dioen moduan Espainiako inperioaren ba-tasunaren, kultura eta aurrerapenaren hizkuntzatzat hartzen zen «gaztelaniaren goraiapatze giro batean». Giro honek, euska-raren lantzale eta defendatzaile bikainenak (Moret, Alesón, Eli-zalde, Larramendi, Mendiburu, Kardaberatz...) ziren josulagu-nen kanporaketarekin batera, komisario hartzaile erdaldunen harrotzea eta nagusitzea ekarri zuen berekin Nafarroan, Jime-no Juriok dioenez, eta gaztelania eskolan inposatzeak eta eus-karazko liburuen inprimaketa galarazteak ere ez zioten bate-re mesederik egin gure hizkuntzari.

Komisario hartzaile erdaldun horiek, Nafarroako erresuma hiru zatitan banatzea proposatu zuten, hizkuntza egoeraren ara-bera. *Vascuencearen legea* burutara dakarkigun banaketa egin zuten: eremu euskalduna zegoen lehenik, eremu erdalduna gero, eta berria zen —aurreko mendeetako egoeratik aldentzen baitzen— eremu misto edo elebiduna azkenik. Honek gehien-bat Nafarroako erdialdeko bailarak harrapatzen zituen, baina oraindik euskaldunak diren toki batzuk ere bai. Komisario er-daldunek ziotenez, eremu honetan «jende gehienak euskaraz hitz egiten du, baina denek ulertzen dute gaztelania, eta gehie-nek badakite hizkuntza honetan mintzatzen, maisuek haurrei eskoletan erakustearen bortxaz, euskaraz ihardukitzea debe-katzen zaielarik».

KRISI HANDIA

XVIII. mendean lehenbiziko letren irakaskuntza zabaldu eta indartu zen Nafarroan, borbondarren agintearen pean, eta era honetan eskola Inperioko hizkuntzaren sustapen politikoa-

ren tresna bilakatu. Hemendik aitzina umeek gaztelania haurzutu-
tutik ikasiko dute, euskara eskolatik zeharo baztertua, eta are
debebatua, gelditu baitzen, irakaskuntza sistema sekulare be-
rrian. XIX. mendean ere giroa berdina da; egileak arakatu
duen agiri batean erraten denez, 1806an Etxarri-Aranazko
udala kexu azaldu zen, haurrek eskolan aprobetxamendu gut-
xi zutelako, batek ere ez baitzekien erdaraz mintzatzen. Agiri
horretan ikusten den bezala, udalaren arrenkura haurrek er-
daraz ez jakitea zen.

Eskolen sorrera mantsoa izan zen, eta tarteka etenen bat
izan zuen, baina hondarrean aitzina atera ere bai, euskararen
kalterako, irakurtzen, idazten eta zenbatzen, kristau dotrina be-
zala, erdara hutsean ikasten zenez gero. Eta ez bakarrik erdara
hutsean ikasi, euskaraz ihardukitzea guztiz galarazia zegoen,
eta araua betetzen ez zuena gogorki zigortzen zuten, modu ba-
tera edo bestera, Francoren garairaino ibili izan den eraztun
oroitzapen tristekoaz ere baliatuz.

Kardaberatz mingoski arrenkuratu zen, zeren «euskaraz
mintzatzea bekatu handiena balitz bezala, (hizkuntza hau)
gizartetik desagerrarazi nahi dute, eskoletan eraztunekin eta
seinaleekin debebatuz, ipurmasaileko eta zigorrekin». Xedea
euskal hiztuna gaztigatzea, ama hizkuntzarekiko gorrotoa za-
baltzea, euskarari zukeen itzal guztia kendu eta gizartetik
erauztea zen, eta erdietsi ere erdietsi zuten, epe laburrik bar-
ne nafarrok hizkuntza erabiltzea jende ezjakin eta atzeratua-
ren kontua izatera igaro zelako. Garai honetantsu, euskararen
galtzapen prozesu honekin bateratsu alegia, hasten dira kanpo-
ko hizkuntzalariak interesa erakusten gure hizkuntzaren aldera;
Jimeno Juriok, besteak beste, Bonaparte printzeak jokatu
zuen papera eta egin zuen lana azpimarratzen du, «euskalari-
rik euskaltzaleena» zela erranez, Mitxelenaoren oinatzetan.

EUSKO PIZKUNDEA. EUSKAL BERPIZKUNDEA (1876-1936)

XIX. mendean euskarak Nafarroan nozitu zuen gibelamen-
dua izugarria izan zen, Tafalla ingurutik iparraldeko ibar eta

baserrietara atzeratu zen eta. Iruñean eta erresuma zaharreko alderdi zabal batean, jendeak euskara erabiltzeari utzi zion, eta honek sentsibilitate handieneko intelektual iruindarrengan kezka sortu zuen, historiaurretik heldu zen hizkuntza hil zorian zegoela ohartu zirelako.

Gerla karlista bukatzean, foruek eta hizkuntzak, euskal nortasunaren ezaugarri bereizletzat hartzen zirenek, jende askoren kontzientzia iratzarri zuten. Iratzartze honen fruitu izan ziren, Jimeno Juriok dioenez, hainbat aldizkariren jaiotzea, Euskal Herri osoan, lore jokoan antolakuntza, eta Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrera. 1904ko estatistikan garbi ikusten da euskarak franko egin duela atzera Bonapartek 1863an mapa ezaguna moldatu zuenetik; 1935ean Aingeru Irigaraik taiututakoan berriz ere gure hizkuntza gibela joan dela dakusagu. Euskararen aurkariak ugariak ziren, horien artean liberalak: Iruñeko institutuan euskara irakasteko katedra hutsik gelditu zenean kontent azaldu ziren, alferrikakoa zela erranez, «Erriberakoek ikasi behar ez dutelako (euskara), eta Mendialdekoek badakitelako».

Norbaitek pentsa lezake mendea aldatzearekin jarrerak ere aldatu zirela, baina zoritxarrez, esperatzekoa zen bezala, ez zen horrela gertatu, eta euskararen kontrako erasoaldiak lehen bezain bortitz segitu zuen. Artaxonakoak dioenez, 1901ean gobernadore zibilak gutuna bidali zien irakasleei «Mendialdeko zenbait eskolatan irakasgai batzuk biztanleen jatorrizko hizkuntzan ematen direla eta, espainola ez den beste hizkuntza batean irakasteko dagoen debekua hausten dutela» oharraziz. «Aberriaren interesek», biztanleenek eta legeek erdarazko irakaskuntza eskatzen zutela gogorarazten zien, eta euskaraz irakastea «zinetako legehaustea» zela, honek zituen ondorioekin. Unamunoren jarrera ere ez zen euskararen aldekoa; ezaguna den bezala, Salamancako errektore zenak euskarari «heriotza eman eta ohoreki ehorzteko» gonbita luzatu zigun euskaldunoi Bilboko lore jokoetan, haren ustez Espainian espainolaz beste kultura hizkuntzarik izan behar ez zuelako.

Garai honetatik aurrera mendeetan zehar Nafarroako eta nafarren mintzairatzat aitortu izan zena, gizarte aurrerakoi batean

alferreko tresnatako ikusten zutenen erasoen ito bihurtu zen, eta, beste aiekan, balio kultural unibertsalekotzat jotzen zutenen defendatu beharreko kontu. Hizkuntza politikan sartua zen, alderdi diferenteen ideologiengatik. Gerla Zibilaren biktima errugabeetako bat euskara izan zen, autorearen arabera; Espainiaren batasuna, baita linguistikoa ere, garai berriko dogma politiko bilakatu zen. Hain izan zen hau horrela, ezen Nafarroako dokumentazio zaharrea behin baino gehiagotan azaltzen den «agur» hitza bera ere debekatu baitzuten, «separatistek sartutako hitza delako, «adiós» espainol jatorraren orde».

EUSKO BERPIZKUNDEA. EUSKARAREN BERPIZTEA

Gerla ondo gogorra izan zen; Nafarroako populazioa gutxituz joan zen, eta hainbat herrixka hutsik gelditu ziren, egunetik egunera larritzen eta zabaltzen ari zen hiriburuaren onurarako. Industrializazioarekin etorkin franko iritsi zen gurea, nafar asko Gipuzkoara, Bilbora eta bestetara lan eske zihozaz bitartean. Urte latzak izan ziren haiek euskararendako; Euskaltzaindia lur jota zegoen, eta euskarazko irakaskuntzaren arrastorik ez zen. Aurreneko saioak goiz aski hasi ziren, halere, Nafarroan, 1949an José Ángel Zubiaur diputatu hautetsi berriaren proposamenez hain zuzen. Beranduxeago, Urmenetak, Diez de Ultzurrunek, Agerrek eta Satrustegik Bianako Printzea Erakundean euskararen sustapenerako saila sortaraztea lortu zuten. Helburua garrantzi handikoa izan zen, Jimeno Jurioren arabera: nafar hizkuntzaren kontrako laido eta aurreiritzien izotza haustea. Garai horretan, Urmeneta diputatu zelarik, sortuko da *Principe de Viana* aldizkaria, Pedro Diez de Ultzurrun zuzendari izan den duena, eta beranduxeago *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* eta *Fontes Linguae Vasconum*, azkeneko bi hauek Satrustegiren iradokizunez.

Gorago erran dugun bezala, hondarreko atal honetan egile aurreko kapituluari zerien ezkortasuna uxatzen ahalegindu da, horretarako Nafarroako ikastolen jaiotzea eta ibilbidea

azalduz eta euskarazko irakaskuntzaren berri emanez aurrenik, *Vascuencearen legea*-ren kontra agertu bidenabar, bere izaera murriztaileagatik. Nolanahi ere, eta izaera hori gora-behera, Artaxonakoak aitortzen du erakundeen eta jendearen esfortzuak emaitza positiboak ematen ari direla, euskararen sustapenean. Gero euskaltzain, idazle, ikertzaile, itzultzaile, bertsolari, euskarako teknikarien, aldizkarien eta besteren zerrendak heldu dira, oraingoan Nafarroa Behereko datuak ere ematen direlarik.

Aurreko atalen aldean hondarrekoa askoz baikor eta atsegina bada ere, uste dugu hau dela liburuaren zatirik ahulena, jendea mintzeko egokiena izateaz gainera, oso erraza baita norbaitez atzentzea edo propio kanpoan uztea —bai eta ere zerrendan agertzeko aski merezimendurik ez duena sartzea—, egin duen lana eta izan duen ibilbidea ongi ezagutu ezean. Eta hau zaila izaki, hainbeste jende izanez!

Beste alde batetik, uste dugu, liburuaren hasieran kontrakoa erraten bada ere, Nafarroa Beherea ez dela behar bezainbeste aintzat hartu. Badakigu hemengo artxiboetan ibiliz zaila dela, garai batetik aitzina bereziki, Pirinioez haraindiko Nafarroaren berri jakitea, eta honek nolabait arintzenago dio Artaxonakoari bere bekatu arinen zama urria, baina, erran ohi den bezala, hitz emana zor, eta agindutakoa bete behar, zuzen jokatu badugu.

Ez dugu gainbegiratu hau bukatu nahi erran gabe Jimeno Jurioren liburuaren bertuteak eta aldeko puntuak askoz gehiago eta handiago direla, akastako hartzeko adina garrantzi ez duten aipaturikako txikikeriak eta huskeriak baino. Izan ere, eta hasieran zehaztu dugun bezala, Artaxonakoaren libururik hoberenetakoa da bilketatik eta ikerketatik anitz duen hau, euskalari eta euskaltzale guztiek irakurri beharrekoa, orain arte nahitaezko genituen beste lan batzuk osoki baztertu dituen.

1. Baditu akats batzuk, halere, hurrengo argitarapenerako zuzenduko dituztenak, seguruenara. Lehen atalean, konparazione, 51. oharretik aurrerako guztiak falta dira, eta euskarazko aipua ere ez dira beti ongi emanak.

2. Iruñeko hizkuntza egoerari buruzko datuak aparteko bi liburutan bilduak ditu Artaxonakoak: lerroren egilearekin batera moldatu zuen *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Euskaltzaindia, Iruña, 1994, lanean, eta *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, Txalaparta, Tafalla, 1995, delakoan.
3. Autoreak aurreko beste lan batzuetan ere aztertua zuen agiri hau, hain zuzen ere «El nombre vasco de los Arcos según el Fuero de Estella?», *Fontes Linguae Vasconum*, 55, 1990, 55-63 eta «Arqueta 'Los Arcos' (Fuero de Estella)», ib., 65, 1994, 121-138, izenekoetan.
4. Lehenago ere ukitua zuen gai hau, laburki, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*-ko 79-80. orrialdeetan, eta «Las lenguas escritas y habladas en Pamplona» lanean, *FLV*, 68, 1995, 51-68. Gai honetaz beste autore batzuk ere mintzatuak ziren, hala nola, Fdo. González Ollé «La lengua occitana en Navarra», *RDTP*, 25, 1966, 285-300, lanean; Koldo Mitxelena «Notas sobre las lenguas de la Navarra medieval», *Homenaje a Don José Esteban Uranga*, Iruña, 1971, 199-214, lanean argitara emana, eta gero berriz *Palabras y Textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 1987, 73-85, liburuan karrikaratua, eta bereziki Ricardo Zierbide, *Estudio Lingüístico de la Documentación Medieval en Lengua Occitana de Navarra*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1988 eta «La scripta administrativa en la Navarra medieval en lengua occitana: comentario lingüístico», in *Zeitschrift für Romanische Philologie*, Tübingen, 1989, 276-312, lanetan. Santos García Larraguetak *Documentos Navarros en Lengua Occitana* eman zuen argitara 1976-77 urteetan, Iruñean, *Anuario de Derecho Foral-II* delakoan. Ricardo Zierbidek lan honen berrargitarapena egin zuen Donostian, 1990. urtean, Eusko Ikaskuntzaren liburu bildumaren barruan.
5. Honetaz informazio gehiago nahi duenak hurrengo lanok ikus ditzake, besteak beste: «El Romance Navarro», Fdo. González Ollé, *RFE*, LIII, 1970, 45-93; «Comentario lingüístico del Fuero de Tafalla de 1157», Ricardo Zierbide, *PV*, XXXV, 1973, 27-45, autore beraren «Notas lingüísticas a las Ordenanzas de Tafalla (1309)», ib., 1974, 81-108; *El Dialecto Navarro en los Documentos del Monasterio de Irache*, Carmen Saralegui, *PV-CSIC*, Iruña, 1977; *El Romance Navarro en los Manuscritos del Fuero Antiguo del Fuero General de Navarra*, M^o Angeles Libano, eta azken aldi honetan *El romance navarro en documentos reales del siglo XIV (1322-1349)*, Carmela Pérez-Salazar, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1995.
6. *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Cizur*, Euskaltzaindia, Iruña, 1986, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Galar*, ib., 1987, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, ib., 1989, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Iza*, ib., 1990, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Ansoain*, Euskaltzaindia, Iruña, 1992.
7. *Estudio Toponímico de Burlada*, Burlatako Udala, Iruña, 1991.
8. Laugarren oinoharrean aipatu dugu.
9. *Jesukristo, María eta Santuen Bizitzak*, Juan Apececheak eta F. Ondarrak prestatutako edizio kritikoa, Nafarroako Gobernua, Iruña, 1994, 460. Letra beltza gurea da.
10. Ondorio berera iristen da «Pamplona. El vascuence en San Cernin (siglo XVII) lanean, *FLV*, 70, 1995, 487-514, nahiz bertan garbi ikusten den Iruñeko zalduneri gehiena —euskara mintzatzen zen tokietan ofizialtzea proposatu zuen Fermin Ultzurrungo salbuespena izan zen— erdaltzalea zela arrunt; ez, ordea, edo ez hainbeste bederen, hiriburuko elizgizonak.
11. «Juan de Beriain, escritor vasco de Navarra (Uterga, c. 1566-1633)», *FLV*, 52, 1988, 241-265.
12. «Juan de Amendux poeta euskaldun. Pamplona (c. 1540-1580)», *FLV*, 71, 1996, 99-117.
13. Mitxelenak, halere, aski kontu argitatzat ematen du, honela dioenean: «Ez ote zekien [Moretek] euskaldunek, *los Vascongados*, euskaraz egiten zutenek, **bera barme**, *Irunberri* (Erronkarin, gero bederen *Urunberri*) esaten zutela? Hor ere erdibidetik, 'zubigintzan', ingelesen *compromise*-ean, ibili zen Moret, euskararen eta erdararen artean», in «Iruña», *Euskal idazlan guztiak VII. Hizkuntzalaritza II*, Joseba Lakarrak prestatutako argitarapena, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 115-123 [118-119]. Letra beltza gurea da.
14. «El P. Moret confesor en vascuence», *FLV*, 63, 1993, 157-162.
15. Zidakosko hiriko (hizkuntza) historia eta toponimia ere oso ongi ezagutzen ditu Jimeno Juriok, ez baitzuen alferrik idatzi bere *Toponimia Histórico-Etnográfica de Tafalla* lana, 1987ko Ángel Apraiz beka, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.
16. Lehenbiziko alderdia «Salazar / Almiradio. Muga lingüística (1605)», *FLV*, 63, 1993, 238-246 lanean aztertutua, eta bigarrena «El vascuence en Gallipienzo y la Val de Aibar (1571)» delakoan, ib., 60, 1993, 271-275. Hurrengo atalean ere, Agoizko eta Lizarrako hizkuntza egoerez mintzatzerakoan, aldizkari

berean karrikaratutako «El vascuence en Aoiz (siglo XVII)», 59, 1992, 71-96 eta «Causas del retroceso

del euskera en el valle de Allin (Navarra)», 67, 1994, 467-486, artikuluetan oinarritzen da.